# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2146**

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 182/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 23koa. Honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2009ko ekitaldiko aitorpenak aurkezteko arauak eta ereduak onartzen dira.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak 104.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, "autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo berezien erabilera, Ogasun Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak onartuko ditu. Era berean, foru diputatu horrek finkatuko ditu aurkezteko modu eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko egoerak eta baldintzak".

Aurki hasiko da 2009ko ekitaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenak aurkezteko epea.

Hori dela eta, besteak beste, aitorpen modalitateak, aitorpenak aurkezteko epea eta lekuak arautu behar dira, bai eta zerga horri dagozkion inprimakien ereduak onartu ere.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoari jarraituz, aipatutako batzordearen txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai honi buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenak egiteko moduak.

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenak hurrengo sistemen bidez aurkez daitezke:

A) "rentafácil"

1. Arabako Foru Aldundiak aldez aurretik aukeratutako zenbait zergaduni bidaltzen dizkien autoaitorpen-proposamenak dira. Hauek autolikidazioaren balio juridikoa izango dute, zergadunak proposamen horrekin ados dagoela adierazten duen unean. Honek ados dagoela adierazi eta gero, itzulketa egingo da edo, hala badagokio, ateratzen den kuota helbideratuko da.

2. Zergadunak, horretarako emandako epearen barruan, ez badu adierazten jasotako proposamenarekin ados dagoela, administrazio jarduketa egin gabekotzat emango da eta zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena aurkeztu beharko du, horretara beharturik badago, gainerako sistemetako baten bitartez.

B) "rentared"

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena egiteko Arabako Foru Aldundiak prestaturiko laguntza programa erabiliz zergadunek egindako eta www.alava.net-en bidez "rentaweb"etik bidalitako aitorpenak dira.

C) "rent@raba"

1. "rent@raba" Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboei aitorpenak egiteko doan eskaintzen zaien zerbitzua da, baldin eta aitortzaileek aitorpen modalitate hori egiteko baldintza guztiak betetzen badituzte. Zerbitzu hau Arabako Foru Aldundiaren Ogasun bulegoetan eta horretarako baimena duten erakunde laguntzaileetan ematen da.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**2146**

**ORDEN FORAL 182/2010, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 23 de marzo, de aprobación de las normas y modelos para la presentación de las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondientes al ejercicio 2009.**

El artículo 104.7 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, señala que "los modelos de autoliquidación, así como la utilización de modalidades simplificadas o especiales de autoliquidación, se aprobarán por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, que establecerá la forma y plazos de su presentación, así como los supuestos y condiciones de presentación de las autoliquidaciones por medios telemáticos".

Próximamente va a iniciarse el plazo para la presentación de las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondientes al ejercicio 2009.

Por este motivo se hace necesario regular, entre otras cuestiones, las modalidades de declaración, el plazo y lugares en que podrán presentarse las declaraciones, así como aprobar los modelos de impresos correspondientes.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Artículo 1. Modalidades de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Uno. Las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas podrán presentarse por los siguientes sistemas:

A) "rentafácil"

1. Son las propuestas de autodeclaración que la Diputación Foral de Álava remite a determinados contribuyentes, previamente seleccionados, que tendrá la consideración jurídica de autoliquidación en el momento en el que conste la conformidad del contribuyente con la citada propuesta. Una vez que éste nos comunique su conformidad, se procederá a practicar la devolución o, en su caso, a domiciliar la cuota resultante.

2. Si en el plazo concedido para ello, el contribuyente no prestara su conformidad a la propuesta recibida, se tendrá por no efectuada la actuación administrativa, quedando el contribuyente obligado a presentar, en el supuesto de que tuviera este deber, la declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a través de alguno de los restantes sistemas.

B) "rentared"

Son las declaraciones confeccionadas por los contribuyentes mediante el Programa de Ayuda del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas elaborado por la Diputación Foral de Álava, y que se remiten por "rentaweb" a través de www.alava.net.

C) "rent@raba"

1. "rent@raba" es un servicio para confeccionar las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que se presta gratuitamente a los contribuyentes que reúnan los requisitos exigidos para poder utilizar esta modalidad de declaración. Este servicio se presta en las oficinas de Hacienda de la Diputación Foral de Álava y en las Entidades Colaboradoras autorizadas al efecto.

Zerbitzu hau emateko Arabako Foru Aldundiaren baimena duten gestoriek eta aholkularitzek aurkez ditzakete sistema honen bidez zergadunen aitorpenak.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasibo guztiek erabil dezakete aitorpen modalitate hau, ondorengo kasuetakoren batean daudenek izan ezik:

a) Jarduera ekonomiko batean aritzen direnak eta etekin garbia zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluez besteko modalitate batean aurkezten dutenak.

b) 2009ko ekitaldian ohiko etxebizitza eskualdatu dutenek.

c) 2009ko ekitaldian balio higikorren edo higiezinen salmentako hiru eragiketa baino gehiago egin dituztenek.

D) “autorenta”

1. Aitorpen modalitate hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu beharrean dauden zergadunei aplikatuko zaie, baldin eta Bat idatz zati honetako aurreko letretan aurreikusitako aurkezpen sistemak erabiltzen ez badituzte.

2. “Autorenta” sistemaren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenak bi modutara aurkez daitezke:

- Programa aitorpenak.
- Paperezko aitorpenak.

3. Programa aitorpenak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena egiteko Arabako Foru Aldundiak prestaturiko Laguntza Programa erabiliz egindako aitorpenak dira.

Prozedura horren bidez egindako aitorpenak foru agindu honen 6. artikuluak ezartzen dituen edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira, inprimatzen diren paperean. Honek inprimaki ofizialaren balio berbera du.

4. Paperezko aitorpenak berariaz onartutako eta Arabako Foru Aldundiak editaturiko inprimaki ereduak erabiliz egindako aitorpenak dira.

Foru agindu honek 6. artikuluan adierazitako edozein tokitan aurkeztu beharko dira aitorpen hauek.

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena, “rentafácil” eta “rentared” modalitateetan izan ezik, nahitaezko identifikazio etiketarekin aurkeztu beharko da, azaroaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 99/1996 Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Inprimaki ereduak.

2009ko ekitaldiari dagokion Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren aitorpen eredua onartzen da. 100 eredua da, eta foru agindu honen I. eranskinean agertzen da.

Era berean, 100 ereduaren eranskinak onartzen dira, foru agindu honen I. eranskinean adierazitakoaren arabera.

3. artikulua. Inprimakien eta laguntzarako programa informatikoen banaketa eta salmenta.

Bat. Aurreko artikuluak aipatzen dituen inprimakien banaketa eta salmenta Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzaren Agiritegi, Jakinarazpen eta Erregistro Bulegoaren bidez egingo da, ondoren zehaztutako prezioetan:

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren multzo osoa (jarduera ekonomikoak barne –100-AE-): 0,30 euro.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren multzo murriztua (jarduera ekonomikorik gabe –100-): 0,30 euro.

Bi. Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako banaketa eta salmenta tabako dendetan ere egingo da.

Hiru. Aipatutako inprimaki horiek guztiak Interneten daude eskura (www.alava.net).

Lau. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako laguntza programa Arabako Foru Aldundian eskuratu ahal izango da, bai eta tabako dendetan ere. Programa honek 1,20 euro balio du.

Bost. Aurreko paragrafoan aipatutako laguntza programa horiek Internetetik ere behera karga daitezke (www.alava.net).

Las Gestorías o Asesorías acreditadas ante la Diputación Foral de Álava podrán presentar las declaraciones de los contribuyentes a través de este sistema.

2. Podrán utilizar esta modalidad de declaración todos los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas excepto quienes se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

a) Ejercer una actividad económica y determinar su rendimiento neto por una modalidad distinta a la de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva.

b) Haber transmitido la vivienda habitual en el ejercicio 2009.

c) Realizar durante el ejercicio 2009 más de tres operaciones de venta de valores mobiliarios o inmobiliarios.

D) “autorenta”

1. Esta modalidad de declaración es de aplicación a los contribuyentes obligados a presentar la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que no utilicen los sistemas de presentación previstos en las letras precedentes de este apartado Uno.

2. La presentación de las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas por el sistema de “autorenta” puede efectuarse a través de dos procedimientos:

- Declaraciones-Programa.
- Declaraciones-Papel.

3. Las Declaraciones-Programa son las confeccionadas por los contribuyentes utilizando el Programa de Ayuda del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que ha elaborado la Diputación Foral de Álava.

Las declaraciones confeccionadas mediante este procedimiento deberán presentarse en cualquiera de los lugares a que se refiere el artículo 6 de esta Orden Foral, en el papel en el que se impriman, que tiene la misma validez que el impreso oficial.

4. Las Declaraciones-Papel son las declaraciones confeccionadas utilizando los modelos de impresos aprobados al efecto y editados por la Diputación Foral de Álava.

La presentación de estas declaraciones deberá efectuarse en cualquiera de los lugares señalados en el artículo 6 de esta Orden Foral.

Dos. La presentación de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, salvo en las modalidades de “rentafácil” y “rentared”, deberá ir acompañada de la etiqueta identificativa obligatoria, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto Foral 99/1996, del Consejo de Diputados, de 19 de noviembre.

Artículo 2. Modelos de impresos.

Se aprueba el modelo de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al ejercicio 2009. Este modelo es el 100 y figura en el Anexo I de esta Orden Foral.

Igualmente se aprueban los Anexos a dicho modelo 100, en los términos que figuran en el Anexo I de esta Orden Foral.

Artículo 3. Distribución y venta de los impresos y de los Programas de Ayuda.

Uno. La distribución y venta de los impresos a que se refiere el artículo anterior se efectuará a través del Negociado de Archivo, Notificaciones y Registro de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, a los precios que seguidamente se detallan:

a) Juego completo de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (con actividades económicas -100-AE-): 0,30 euros.

b) Juego reducido de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (sin actividad económica -100-): 0,30 euros.

Dos. Igualmente la distribución y venta de los impresos citados en el apartado anterior, se efectuará por las expendedurías de tabaco.

Tres. Los impresos anteriormente citados estarán disponibles en Internet (www.alava.net).

Cuatro. El Programa de Ayuda del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se podrá adquirir en la Diputación Foral de Álava y en las expendedurías de tabaco al precio de 1,20 euros.

Cinco. La descarga de los Programas de Ayuda citados en el apartado anterior estará también disponible en Internet (www.alava.net).

4. artikulua. Froga-agiriak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenarekin batera, aplikatzekoak diren froga-agiriak aurkeztu beharko dira, aitorpenean agertu behar diren mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, diru sarrera, gutxiketa eta kenkarien arabera.

5. artikulua. 2009ko ekitaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenak aurkezteko epea.

Bat. 2009ko ekitaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpena aurkezteko epeak ondoko hauek izango dira:

1. “rentafácil”:

Zergadunei bidaltzen zaizkien aitorpen proposamenen aldaketak 2010eko apirilaren 6tik maiatzaren 7ra bitartean egin ahal izango dira.

Zergadunei bidalitako aitorpen proposamenak baieztatzea, 2010ko apirilaren 6tik maiatzaren 21era arte egin daiteke.

2. “rent@raba” zerbitzua ondoko hauetan ematen da: Arabako Foru Aldundiaren Ogasun bulegoetan, horretarako baimenduta dauden finantza entitate laguntzaileak, eta Arabako Foru Aldundian kreditaturiko gestorien edo aholkularitzen bidez.

- Hasiera eguna: 2010eko maiatzaren 3a.
- Amaiera eguna:

a) Finantza erakunde laguntzaileetan: 2010eko ekainaren 17a.

b) Foru Aginduaren bulegoetan: 2010eko ekainaren 18a.

c) Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako gestoria edo aholkularitzen bidez: 2010eko ekainaren 25a.

3. “rentared”, partikularrek Interneten bidez bidaliz gero:

- Hasiera eguna: 2010eko apirilaren 6a.
- Amaiera eguna:

a) Positiboak:

- Helbideratutako kuotarekin: 2010eko ekainaren 20a.
- Ordainketa pasabidez: 2010eko ekainaren 21etik 25era

b) Nuluak eta itzultzekoak: 2010eko ekainaren 25a.

4. “autorenta”, inprimaki ofizialean nahiz Laguntzarako Programak inprimatuz aurkezten direnak.

- Hasiera eguna: 2010eko maiatzaren 3a.
- Amaiera eguna: 2010eko ekainaren 25a.

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zergadunek, “autorenta” aitorpen sistema erabiltzen badute, horren bi aldaeretako edozeinetan, aitorpena aurkezteko garaian autolikidazioa egin beharko dute, eta, hala badagokie, horren zenbatekoa ordaindu beharko dute, hurrengo artikuluetan ezartzen den prozedurari jarraituz.

Aitorpena aurkezteko gainerako edozein modalitate erabiliz gero, zergadunek beren aitorpenetan adierazitako kontuetan helbideratuko dira kuotak, salbu eta diru sarrera ordainketa pasabidearen bitartez egiten bada.

6. artikulua. Aitorpenak aurkezteko tokiak.

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenak, identifikazio etiketekin batera, hurrengo tokietan aurkez daitezke:

A) Aitorpenen emaitza dirua ordaindu beharra bada:

1. Otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera erakunde laguntzaile diren bankuetan eta aurrezki kutxetan.

Aitorpenak barruan honako hauek dauzkan gutun azal itxi batean aurkez daitezke: jatorrizko aitorpena (inprimaki ofizialak erabiliz gero) edo paper inprimatua (Laguntza Programa erabiliz gero).

Erakunde laguntzailean ordaindu izanaren agiriak aurkezpen eta ordainketaren ordezkagiri gisa balioko du.

2. Posta arruntez edo ziurtatuz, Arabako Foru Aldundiaren aldeko banku transferentziaren edo posta-igorpenaren agiriaren fotokopia erantsita. Horrez gainera, aitorpenaren originala edo dagokion paper inprimatua bidaliko dira, aurreko idatz zatian adierazi den bezala.

Artículo 4. Justificantes.

A la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se adjuntarán los justificantes que sean de aplicación en función de las operaciones, rentas, gastos, ingresos, reducciones y deducciones de cualquier tipo que deban constar en la declaración.

Artículo 5. Plazo de presentación de las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondientes al ejercicio 2009.

Uno. Los plazos de presentación de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondientes al ejercicio 2009, serán los siguientes:

1. “rentafácil”:

Las modificaciones de las propuestas de declaración remitidas a los contribuyentes podrán realizarse del 6 de abril al 7 de mayo de 2010.

Las confirmaciones de las propuestas de declaración remitidas a los contribuyentes podrán realizarse del 6 de abril al 21 de mayo de 2010.

2. “rent@raba” se presta en las oficinas de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, en las Entidades Financieras Colaboradoras autorizadas al efecto y a través de las Gestorías o Asesorías acreditadas ante la Diputación Foral de Álava.

- Fecha de inicio: 3 de mayo de 2010.
- Fecha de finalización:

a) En las Entidades Financieras Colaboradoras: 17 de junio de 2010.

b) En las oficinas de la Hacienda Foral: 18 de junio de 2010.

c) A través de las Gestorías o Asesorías acreditadas ante la Diputación Foral de Álava: 25 de junio de 2010.

3. “rentared” remitidas por los particulares a través de Internet:

- Fecha de inicio: 6 de abril de 2010.
- Fecha de finalización:

a) Positivas:

- Con cuota domiciliada: 20 de junio de 2010.
- Por pasarela de pagos: del 21 al 25 de junio de 2010

b) Nulas y a devolver: 25 de junio de 2010.

4. “autorenta” presentada en el impreso oficial o mediante la impresión de los Programas de Ayuda:

- Fecha de inicio: 3 de mayo de 2010.
- Fecha de finalización: 25 de junio de 2010.

Dos. Los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que utilicen el sistema de presentación “autorenta”, en cualquiera de sus dos variantes, vendrán obligados, al tiempo de presentar su declaración, a practicar autoliquidación y a ingresar, en su caso, su importe conforme al procedimiento establecido en los artículos siguientes.

La utilización de cualquiera de las otras modalidades de presentación llevará consigo la domiciliación de las cuotas en las cuentas indicadas por los contribuyentes en sus declaraciones, excepto en caso de que se efectúe el ingreso mediante la pasarela de pagos.

Artículo 6. Lugares de presentación de las declaraciones.

Uno. Las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, conjuntamente con las etiquetas identificativas, podrán presentarse en cualquiera de los siguientes lugares:

A) Declaraciones con resultado a ingresar:

1. En Bancos o Cajas de Ahorro que tengan la condición de Entidad Colaboradora según lo dispuesto en el Decreto Foral 26/1996, de 27 de febrero.

Las declaraciones podrán presentarse en sobre cerrado, en el que se incluirá el original de la declaración (caso de utilizarse los impresos oficiales) o el papel impreso (caso de utilizarse para su confección el Programa de Ayuda).

El pago en la Entidad Colaboradora servirá como resguardo de presentación y pago.

2. Por Correo, ordinario o certificado, acompañando fotocopia del resguardo de la correspondiente transferencia bancaria o giro postal a favor de la Diputación Foral de Álava, remitiéndose también, según lo señalado en el apartado anterior, el original de la declaración o el papel impreso correspondiente.

B) Aitorpenen emaitza itzultzekoa denean eta aitorpen negatiboak direnean:

1. Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

Aurkezpenak kopia bikoitzean aurkezten badira, interesatuari kopia zigilatua emango zaio, edo bestela, aurkeztu izana kreditatzen duen eginbidea.

2. Otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera erakunde laguntzaile diren bankuetan eta aurrezki kutxetan.

3. Posta arruntez edo ziurtatuz, aitorpenaren originala edo aitorpena agertzen duen paper inprimatuarekin batera.

Aitorpena aurkeztu izana ziurtatzen duen eginbidea lortzeko, aitorpena nahitaez Arabako Foru Aldundian aurkeztu beharko da zuzenean.

Bi. Aurreko “Bat” idatz zatian ezarritakoa ez zaie aplikatuko “rentafácil”, “rentared” edo “rent@raba” modalitateetan egindako aitorpenei. Aitorpen hauek www.alava.net-en bidez “rentaweb”etik bidaliko dira, edozein dela ere haien emaitza.

7. artikulua. Ordainketa.

Bat. Abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onartzen duenak, 77.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga horren autolikidazioaren zenbatekoa bi alditan ordain daiteke, inolako interesik eta errekargurik gabe:

Lehenengoa, haren zenbatekoaren ehuneko 60koa, autolikidazioa aurkezteko garaian, eta

Bigarrena, gainerako ehuneko 40koa, 2010eko azaroaren 10a baino lehen.

Bi. Zatikapen hau ez zaie aplikatzekoa izango Foru Agindu honen 5. artikuluan ezarritako epetik kanpoan aitorpena aurkezten duten zergadunei, ez eta autolikidazio osagarriei ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu honetako xedapenak ALHAOn argitaratzen diren egun berean sartuko dira indarrean, eta 2009ko ekitaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitorpenei aplikatuko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 23a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

B) Declaraciones con resultado a devolver y negativas:

1. En las oficinas de la Diputación Foral de Álava.

Si las declaraciones se presentan por duplicado se devolverá al interesado la copia sellada o, en su caso, diligencia acreditativa de su presentación.

2. En Bancos o Cajas de Ahorro que tengan la condición de Entidad Colaboradora según lo dispuesto en el Decreto Foral 26/1996, de 27 de febrero.

3. Por Correo, ordinario o certificado, incluyendo el original de la declaración o el papel impreso en el que obre la misma.

Para obtener diligencia acreditativa de presentación de la declaración será precisa su presentación directamente en la Diputación Foral de Álava.

Dos. Lo dispuesto en el apartado Uno anterior no será de aplicación a las declaraciones confeccionadas en las modalidades de “rentafácil”, “rentared” y “rent@raba”, las cuales se remitirán, independientemente de su resultado, por “rentaweb”, a través de www.alava.net

Artículo 7. Pago.

Uno. De conformidad con lo previsto en el artículo 77.2 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el ingreso del importe resultante de la autoliquidación de dicho Impuesto, podrá fraccionarse, sin interés ni recargo alguno, en dos partes:

a) La primera, del 60 por ciento de su importe, en el momento de presentar la autoliquidación, y

b) La segunda, del 40 por ciento restante, antes del 10 de noviembre de 2010.

Dos. Este fraccionamiento no será aplicable a los contribuyentes que presenten su declaración fuera del plazo establecido en el artículo 5 de esta Orden Foral, ni a las autoliquidaciones complementarias.

DISPOSICIÓN FINAL

Las disposiciones de esta Orden Foral entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y serán aplicables a las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondientes al ejercicio 2009.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2010.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.